

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua
III.c) atalaren aldaketa.**

Bermeoko Udalak, 2021eko uztailaren 30ean izandako Osoko Bilkuran, Bermeoko HAPOaren III. Tituluko erabilera ordenantzen 3.4.1 artikulua III.c) atalaren aldaketa hasieraz onartzea ebatzi zen eta jendaurrean aurkezteko erabakia hartu zuen.

Izapide hori egin ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (152. zenbakia, 2021eko abuztuaren 10ekoa) iragarkia argitaratuta, jendaurrean jarri eta 30 eguneko epean, ez da inolako alegaziorik egin.

Hori ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ordenantza hori behin betiko onartutzat jotzen da, eta argitaratu egiten da:

III.c) Ostatu erabilerak

Erabilera horrek kontuan izango ditu, irabazi asmoz pertsonen ostatu emateko erabilera mota ezberdinak, besteak beste, hotelak, ostatuak, hotel-Egoitzak, motelak, pensioak eta apart hotelak.

HAPO honek egoitza kolektibotzat edo etxebizitzatzat hartuko ditu, apart hotel izateko dagokien legeria sektorialeko baldintzak betetzen ez dituzten alokairuko apartamentu multzoak, haien ezaugarrien arabera.

Kategoriak:

Ostatu Erabilera. 1. kategoria

1.000 m²-tik beherako azalera eraikia dutenak, bizitegi erabilera edo hirugarren sektoreko erabilera bezala xehatuki kalifikatutako lurzoruetan baimentzen dira, dagokion antolamendu xehatu edo ordenantzaren arabera.

Ostatu Erabilera. 2. kategoria

1.000 m²-tik gorako azalera eraikia dutenak, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri guneetan bakarrik baimenduko dira, hirugarreneko sektoreko, egoitzazko, industria edo komunitate-ekipamenduko kalifikazio orokorra dutenetan eta soilik garapen antolamenduak edo mendekoak onartzen baldin badu, eta antolamendu horren arabera.

Bermeon, 2021eko irailaren 27an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense